

MONARKIARI EZ. HERRITARRAK ERABAKI

Erregeak abdikatu du. Agerikoa da Monarkiaren sinesgarritasunik eza, ez soilik Juan Carlosena. Behartuak egon dira "itxuraldaketa operazio" bat antolatzena guztiz anakronikoa eta ez demokratikoa den Instituzio honen erorketa ekiditeko. Hori erakutsi dute sare sozialetik indar errepublikazaleak Estatu osoko herrietan deitu dituzten mobilizazioak izan duten arrakasta. Errepublika proposamenen garaia da. Demokraziaren garaia.

Bipartidismoak Europar hauteskundeetan jasan duen porrotak azkartu du guztiz demokraziaren aurkakoa den Instituzio hau itxuraldatzeko premia. Datorren urtean egitekoak diren udal, foru eta Gorteetarako hauteskundeen ondotik Ordezkapen Legea aurrera ateratzeko ziurtasunik ez dutelako.

Neoliberalismoa sustengatzen duen bipartidismoa da, Monarkiarekin batera, oligarkiaren interesen alde egiten ari dena, eta milaka pertsona miseriara eta etsipenera eramaten ari dena. IBEZ 35eko enpresak eta artzapezpikuek Erregeari eskaini dioten babesak ezin hobeto adierazten dute Monarkiaren izaera.

Monarkia frankismotik inposatu zen, eta ez du inork inoiz bozkatu. Herritarren %75ak ez du aukerarik izan pairatzen dugun Konstituzio monarkikoaren inguruko iritzia emateko. Nazio Burujabetza ezin daiteke familia baten esku egon. Ez gara subditoak, herritarrak gara eta erabaki nahi dugu.

Manifestazio hau sustengatzen dugun herritar zein eragileak deialdi zabala luzatzen diegu herritarrei Monarkiaren aurka mobilizatzen segitzeko; prozesu demokratiko bat irekitzearen alde mobilizatzeko; Estatuko herritarrak zein herriek geure etorkizuna erabakitzeko aukera izan dezagun.

IRUÑEAN, 2014ko ekainaren 5ean